Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# Trantsizio Digital eta Berdea Programa 2022

**Helburua (1. oinarria)**

Gizarte digitalizatuagoa, aztarna ekologiko eta klimatiko txikiagoa duena eta inklusiboagoa eraikitzeko erronka globalari laguntzea. Horretarako, dirulaguntzak emango dira enpresek ibilbideak egiteko eta digitalizazio- eta ingurumen-berrikuntzako proiektuak gauzatzeko, enpresa horien lehiakortasuna hobetzeko eta aztarna ekologikoa murrizteko.

**Erakunde onuradunak (3. oinarria)**

Berezko nortasun juridikoa duten enpresak, honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

- Egoitza soziala eta fiskala Bizkaian dutenak, eta Bizkaian ekoizpen-zentro bat edo balio erantsi handiko zentro bat dutenak.
- 5-250 langile arteko plantilla (lanaldi osoko baliokideetan).

Sektore hauetakoren baten barne egon behar da proiektuari zuzenean lotutako enpresako jarduera : industria, eraikuntza, garraioa, industriarekin lotutako zerbitzuak, turismoa eta handizkako merkataritza (dekretuaren eranskineko epigrafeen arabera).

**Diruz lagun daitekeen egitatea (4., 7., 10 .eta 13. oinarriak)**

**1. ildoa – planak egitea** eragile adituen laguntzarekin; plan horiek oinarrizko digitalizaziokoak, digitalizazio aurreratukoak edo ingurumen-berrikuntzakoak eta ekonomia zirkularrekoak izango dira.
**2. ildoa - oinarrizko digitalizazio-proiektuak**: Elektronikaren, Informazioaren eta Telekomunikazioen Teknologia hauetakoren bat ezartzea, besteak beste: merkataritza elektronikoa, enpresaren kudeaketa aurreratuko sistemak, produkzioa kudeatzeko sistema, logistika kudeatzeko sistemak, produktuaren bizi-zikloaren kudeaketa, diseinu- eta kalkulu-aplikazioak, prozesu industrialen automatizazioa, Prozesu operatiboetako seinaleak eta datuak integratzea enpresan, zibersegurtasuna.
**3. ildoa - digitalizazio aurreratuko proiektuak**: Elektronikaren, Informazioaren eta Telekomunikazioen Teknologia sofistikatuak aplikatzea enpresaren prozesuetan. Aplikatze horrek automatizazioa eta datu-trukea ahalbidetzen du eta, ondorioz, hobekuntzak lortzen dituzte enpresaren balioa sortzeko eremuren batean
**4. ildoa – ingurumen-berrikuntzaren arloko proiektuak**, betiere ekonomia zirkularrarekin lerrokatuta.

**Diruz lagun daitezkeen gastuak (5., 8., 11 .eta 14 oinarriak)**

**1. ildoa:** Plana egiteko agente adituak kontratatzeko gastuak.
**2., 3. eta 4. ildoak**

- Proiektuari zuzenean lotutako kanpoko gastuak, diruz lagundu ezin direnak izan ezik.
- Proiektura bideratutako langileen barne-gastuak.
- (2. ildoa). Hardwarean eta softwarean inbertitzea diruz lagundu ezin diren gastutzat jotakoak izan ezik.
- (3. eta 4. ildoa). Inbertsioak Kontabilitate Plan Orokorraren 206., 212., 213., 215. eta 217. kategorietan.
- (4. ildoa). Proiektuaren ingurumen hobekuntza kalkulatzeko kanpoko kontratazioen gastuak. kalkuluak bizi-zikloaren ikuspegia izan beharko du, eta aitortutako metodologietan oinarritu beharko du, hala nola UNE-EN ISO 14040 eta 14044:2006
- (Bakarrik plan bat badauka). Eragile adituen laguntza-gastuak, proiektuaren kudeaketari buruzko aholkularitzarako.
- (Bakarrik plan bat badauka). Langile teknologoak kontratatzeko gastuak.

**Laguntzen zenbatekoa (7., 25., 43 .eta 61. oinarriak)**

**1. ildoa** - Planak egitea

- Diruz lagun daitekeen gastuaren oinarriaren %80.
- Gehieneko dirulaguntza: 10.000 euro.
- Ez da 1.000 eurotik beherako laguntzarik emango.

**2., 3. eta 4. ildoak**- Oinarrizko digitalizazioko, digitalizazio aurreratuko eta ingurumen-berrikuntzako proiektuak

| | Planik gabe | | | Planarekin | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Dirulaguntzaren % | Gehieneko dirulaguntza | | Dirulaguntzaren % | Gehieneko dirulaguntza | |
| | | 2. ildoa | 3. eta 4. ildoak | | 2. ildoa | 3. eta 4. ildoak |
| Barne-gastua | %50 | 30.000 € (barne-gastua 6.000 €) | 75.000 € (barne-gastua 15.000 €) | %70 | 50.000 € (barne-gastua 10.000 €) | 100.000 € (barne-gastua 20.000 €) |
| Kanpo-gastua | %50 | | | %70 | | |
| Inbertsioa | %10 | | | %15 | | |
| Laguntza | %0 | 0 € | 0 € | %80 | 10.000 € | 10.000 € |
| Teknologoa kontratatzea | %0 | 0 € | 0 € | %50 | 30.000 € | 30.000 € |

- 2. ildoan ez da 3.000 eurotik beherako laguntzarik emango eta 3. eta 4. ildoetan gutxieneko dirulaguntza 6.000 eurokoa izango da

**Emakidaren araudia eta araubidea (25. oinarria)**

58/2022 Foru Dekretua, apirilaren 26koa (B.A.O., 80 zk., 2022ko apirilaren 28koa)

**1. eta 2. ildoak:** Lehia askeko araubidean ematen da (banaka ematen da, eskabideak osorik eta zuzen beteta jaso diren hurrenkeraren arabera)

**3. eta 4. ildoak:** Norgehiagoka

**Epeak (34. eta 35. Oinarriak)**

Proiektuak gauzatzeko epeak:

- **1. ildoa**: 2022ko urtarrilak 1 – 2022ko abenduak 31
- **2., 3. eta 4. ildoak**: 2021eko urtarrilak 1 - 2023ko ekainak 30

Eskabideak aurkezteko epea:

- **1. eta 2. ildoak: maiatzaren 2**an hasi eta **uztailaren 31**ko 13:30ak arte.
- **3. eta 4. ildoak: maiatzaren 2**an hasi eta **maiatzaren 20**ko 13:30ak arte

Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren bidez (http://www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual). Horretarako, sinadura elektronikoa izan beharko du (Izenpe, ONA, NAN elektronikoa, FEA,...), Bizkaibai zerbitzuan alta emanda egon beharko du edo B@kQ ziurtagiri elektronikoaren bidez sartu ahal izango da; Ziurtagiri hori Orueta Apezpikua kaleko gure bulegoetan eskatu ahal izango da.

Ekonomia Sustatzeko Saila
Berrikuntza Zerbitzua
Orueta apezpikua kalea, 6. 48009 Bilbo

Informazioa:
Tf.: 94 406 8008
berrikuntzazerbitzua@bizkaia.eus
www.bizkaia.eus



Bizkaia
EGEF FEDER